c/ Martín Barua Picaza, nº 27, 5ª planta - 48003 Bilbao | Tel. 667 540 025
www.ftbp-iblf.org | federacion@ftbp-iblf.org

# BIZKAIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

# ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN BIZKAINA DE PATINAJE

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Erakunde horrek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna du, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kiroltaldeak eta bestelako erakundeak Bizkaiko Lurraldean biltzen ditu, Irristaketa egin, sustatu eta antolatzeko xedearekin.

Bizkaiko Irristaketa Federazioak honako kirol diziplinak bilduko ditu bere baitan:

— Patin Hockeya.
— Gurpil-Ilaran patin hockeya.
— Irristaketa Artistikoa.
— Abiadura-Irristaketa.
— Skateboarda.
— Irristaketa Freestyle.
— Irristaketa Alpinoa.
— Roller Derby.
— Irristaketa Agresiboa.

**2. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioa Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen bidez arautzen da, bai eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren, Legea garatzen duten gainerako xedapenen, estatutu hauen nahiz araudi zehatzen eta organoek hartutako akordio baliozkoen bidez ere.

**3. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioaren egoitza Bilboko (PK 48003, Bizkaia) Martín Barua Picaza kalearen 27. zenbakian kokatzen da.

**4. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioak Irristaketako jarduera eta txapelketa ofizial guztiak eta, hala denean, Bizkaiko lurraldean konfiguratu edo definitutako modalitate horren diziplinak bultzatu, kalifikatu, baimendu, ordenatu eta antolatzen ditu, Euskal Irristaketa Federazioaren txapelketei eta Bizkaitik kanpo egiten diren jarduerei kalterik egin gabe.

**5. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioa Euskal Irristaketa Federazioaren

TÍTULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1**
La Federación Bizkaina de Patinaje es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de Patinaje en el Territorio Histórico de Bizkaia.

La Federación Bizkaina de Patinaje tendrá integradas las siguientes disciplinas deportivas:

— Hockey Patines.
— Hockey Línea.
— Patinaje Artístico.
— Patinaje de velocidad.
— Skateboard.
—.Patinaje Freestyle.
— Patinaje Alpino en Línea.
— Roller Derby.
— Patinaje Agresivo.

**Artículo 2**
La Federación Bizkaina de Patinaje se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; así como por el Decreto16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes Estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

**Artículo 3**
La Federación Bizkaina de Patinaje tiene su domicilio en, la calle Martín Barua Picaza, nº 27 de Bilbao, C.P. 48003 (Bizkaia).

**Artículo 4**
La Federación Bizkaina de Patinaje impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de la modalidad deportiva de Patinaje y, en su caso, las disciplinas de dicha modalidad que se configuren o definan en el ámbito territorial de Bizkaia, sin perjuicio de las competencias que son propias de la Federación Vasca de Patinaje ni de las actividades que pueda realizar fuera de Bizkaia.

**Artículo 5**
La Federación Bizkaina de Patinaje está integrada en la Federación

barruan kokatzen da.

Bizkaiko Irristaketa Federazioak autonomia-erkidegoko modalitate horren Bizkaiko kirol federatua ordezkatzen du, eta estatu nahiz nazioarteko ordezkaritza Euskal Irristaketa Federazioari dagokio.

**6. artikulua**

Helburuak bete ahal izateko, Federazioak hurrengo eginkizunak beteko ditu:

a) Kirol federatuaren jarduera Bizkaiko lurraldean antolatzea.

b) Irristaketako txapelketa eta jarduera ofizialak Bizkaian antolatzea.

c) Parte-hartzeari eta txapelketari buruzko arauak ezartzea, hala denean, goi mailako lurralde-eremuko federazioek emandako arauei kalterik egin gabe.

d) Irristaketa autonomia mailan ordezkatzea, eta eremu horretako nahiz estatu eta nazioarteko txapelketetan estamentu guztien parte-hartzea bultzatzea, betiere bere eskumeneko gaiak diren heinean.

e) Irristaketako Federazioaren lizentzien izapidetza egitea,
Euskal Irristaketa Federazioak hori luzatu dezan horrek ezarri betekizunen eta prozeduren arabera.

f) Jardueraren garapenean sortzen diren kirol-gatazkak ezagutu eta konpontzea, organo judizial eta arbitraje-organoek duten eskumenari kalterik egin gabe.

g) Arauen betepena zaintzea eta diziplina-ahala egikaritzea horiek kontuan izanda.

h) Euskal Irristaketa Federazioarekin lankidetzan jardutea kirolean debekatutako gai eta multzo farmakologikoak eta arauzkoak ez diren metodoen erabilera prebenitu, kontrolatu eta errepresiopean jartzeko, horretarako zehaztu arauketari helduta.

i) Irristaketako teknikarien eta epaileen prestakuntzan lankidetzan jardutea, horretarako zehaztu arauketari helduta.

j) Baliabide ekonomiko propioen helburua eta atxikipena ezartzea, bestelako erakundeen jarduera garatzeko igorritako baliabideak kudeatzea eta baliabide guztien aplikazio egokia kontrolatzea.

k) Federazio horri atxikita dauden klubek nahiz kirol-taldeek jaso ditzaketen diru-laguntzen aplikazioa eman eta kontrolatzea.

l) Euskal Herriko administrazioekin lankidetzan jardutea kirolsustapenaren helburuak betetzeko, bereziki, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean emandako lankidetza- eta aholkularitza-eginkizunei dagokienez.

m) Kirol-estatutuak eta arautegiak eratzea.

Vasca de Patinaje.

La Federación Bizkaina de Patinaje ostenta la representación del deporte federado bizkaino correspondiente a su modalidad en el ámbito autonómico, correspondiendo la representación estatal e internacional a la Federación Vasca de Patinaje

**Artículo 6**

Para el cumplimiento de sus fines la Federación ejercerá las siguientes funciones:

a) Organizar la actividad deportiva federada en el ámbito territorial de Bizkaia.

b) Organizar competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva de Patinaje. en el ámbito de Bizkaia.

c) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

d) Ostentar la representación de la modalidad de Patinaje en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones de dicho ámbito, así como en competiciones estatales e internacionales, siempre dentro de su competencia.

e) Tramitar las licencias federativas de Patinaje, para su expedición por la Federación Vasca de Patinaje conforme a los requisitos y procedimientos establecidos por ésta.

f) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen
en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

g) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

h) Colaborar con la Federación Vasca de Patinaje en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

i) Colaborar en la formación de las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva de Patinaje conforme a la normativa que al efecto se determine.

j) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

k) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que pudiera conceder a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a ella.

l) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las federaciones.

m) Elaborar sus estatutos y reglamentos deportivos.

n) Bere lurraldean garatzen den kirol-modalitate horretan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea, eta, ahal den neurrian, bermatzea.
ñ) Oro har, kirol-modalitate hori sustatu eta hobetzeko komenigarria den guztia xedatzea.

**7. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioak bere eginkizunak Euskal Irristaketa Federazioarekin, eta, hala denean, Euskal Federazioaren barruan dauden bestelako lurralde-federazioekin koordinatuta garatuko ditu.

Bizkaiko Irristaketa Federazioak Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan jardungo du eta honekin lankidetza-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu helburuak, kirol-programak, aurrekontuak eta funtzio publikoekin zerikusia duten eskuordetutako gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa izango dute.

Gisa berean, Bizkaiko Irristaketa Federazioak Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera kontratu-programak sinatu ahal izango ditu. Halakoetan, gutxienez ere, finantzaketa-aurreikuspenak, helburu zehatzak edo eskuratu beharreko helburu zenbatgarriak jasoko dira, baita aipatu helburuak ebaluatu eta auditatzeko mekanismoak ere.

**8. artikulua**
Bizkaiko Irristaketa Federazioan debekatuta dago arraza, sexu, erlijio, iritzi edo sinismenen edota bestelako inguruabar pertsonalen nahiz gizarte-inguruabarren ondoriozko bazterkeria.

II. TITULUA

**FEDERAZIOAREN INTEGRAZIOA. LIZENTZIAK**

**9. artikulua**
1. Federazioaren lizentzia titularrari (pertsona fisikoa edo juridikoa) ematen zaion agiri pertsonal eta eskualdaezina da. Agiri horrek Bizkaiko Irristaketa Federazioko kide izatea eta txapelketa ofizialetan parte hartzea ahalbidetzen du, betiere kasuan kasuko arauak kontuan izanda, baita goi mailako lurralde-eremuko txapelketa ofizialetan parte hartzea ere, indarreko arauketan ezarri kasuetan eta baldintzetan.

2. Federazioaren lizentzia bakarra izango da Euskal Herri osoan eta atxikipen bikoitza dakar, Bizkaiko Irristaketa Federazioari eta Euskal Federazioari egindakoa, hain zuzen.

n) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.
ñ) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

**Artículo 7**
La Federación Bizkaina de Patinaje desarrollará sus funciones en coordinación con la Federación Vasca de Patinaje y, en su caso, con las otras Federaciones territoriales integradas en la Federación Vasca.

La Federación Bizkaina de Patinaje colaborará con la Diputación Foral de Bizkaia y podrá suscribir con la misma, convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa.

Igualmente la Federación Bizkaina de Patinaje podrá suscribir con la Diputación Foral de Bizkaia contratos-programas en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoria de dichos objetivos.

**Artículo 8**
En el seno de la Federación Bizkaina de Patinaje no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social.

TÍTULO II

**INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS**

**Artículo 9**
1. La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular, persona física o jurídica, la condición de miembro de la Federación Bizkaina de Patinaje y le habilita para participar en sus competiciones oficiales, siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas, e incluso en aquellas competiciones oficiales de ámbito territorial superior en los casos y condiciones que establezca la normativa vigente.
2. La licencia federativa será única en todo el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la Federación Bizkaina de Patinaje. y a la Federación Vasca.

c/ Martín Barua Picaza, nº 27, 5ª planta - 48003 Bilbao | Tel. 667 540 025
www.ftbp-iblf.org | federacion@ftbp-iblf.org

3. Bi federazioei egindako atxikipena kasuan kasuko lizentzia eskuratuta egiten da.

4. Bizkaiko Irristaketa Federazioak, behin Euskal Federazioarekin ados jarrita, aisia-txartela edo zerbitzu-txartela sortu ahal izango du. Txartel horrek ez du izaera ofiziala eta izena borondatez eman ahal izango da, baina ez dakar txapelketa ofizialetan parte hartzeko eskubiderik, ezta Federazio honetan sartzeko eskubiderik ere. Hain zuzen ere, txartel horrekin kirol-jarduera ez-ofizialetan parte hartu edo zerbitzu jakin batzuk eskuratu ahal izango dira.

**10. artikulua**

1. Bizkaiko Irristaketa Federazioa kirol horretako federazioaren lizentzien izapidetza egiteko erakunde eskudun bakarra da, eta lizentzia horiek Euskal Irristaketa Federazioak luzatuko ditu.

2. Euskal Irristaketa Federazioak lizentzien agiri-, kirol- eta ekonomia-araubidea, horien eskubideak eta betebeharrak, iraupena, indarraldiaren hasiera, kategoriak, kuotak, prozedura, formatua eta gainerako antzeko gaiak arauz ezarriko ditu. Horri kalterik egin gabe, bi federazioek euren eskumenak garatuko dituzte kasuan kasuko arautegien, eta, hala denean, koordinazio-akordio edo hitzarmenen bidez.

3. Bizkaiko Irristaketa Federazioak federatuengandik borondatez kuota gehigarria jaso ahal izango dute zerbitzu eta jarduera zehatzak finantzatzeko.

4. Bizkaiko Irristaketa Federazioak lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia likidatu ahal izango du Batzar Orokorrak onetsitako baldintzetan eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 24.5 artikuluan ezarritakoari helduta, eta ostean hori Euskal Federazioari emango zaio. Zenbateko garbi hori zenbateko gordinari goi mailako lurralde-eremuko txapelketetan parte hartzeagatik ordaindu beharreko aseguruak eta kuotak nahiz Euskal Federazioaren Batzar Orokorraren ariora Lurralde Federazioak ordaindu beharreko zenbatekoak kendu ostean lortzen da.

**11. artikulua**

1. Lizentzien formatua eta edukia Euskal Irristaketa Federazioaren Batzar Orokorrak onetsiko ditu eta lizentzia horietan nahitaez Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2. Bizkaiko Irristaketa Federazioak federatu nahi duten interesdunei federazioen lizentzien betekizunei eta ondoreei buruzko informazioa emango die eta federazioan afiliatzeko beharrezkoak diren agiriak eta datuak jasoko ditu.

3. La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4. La Federación Bizkaina de Patinaje podrá crear, de común acuerdo con la Federación Vasca, una tarjeta recreativa o de servicios, de carácter no oficial y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración en esta Federación.Tal tarjeta sólo dará lugar a la participación en determinadas actividades deportivas no oficiales o a la obtención de determinados servicios.

**Artículo 10**

1. La Federación Bizkaina de Patinaje es la única entidad competente para tramitar las licencias federativas de su modalidad deportiva, licencias que serán emitidas por la Federación Vasca de Patinaje.

2. La Federación Vasca de Patinaje, establecerá reglamentariamente el régimen documental, deportivo y económico de las licencias, sus derechos y obligaciones, duración, comienzo de vigencia, categorías, cuotas, procedimiento, formato y demás cuestiones análogas. Sin perjuicio de ello, ambas Federaciones desarrollarán sus competencias a través de los Reglamentos correspondientes y, en su caso, acuerdos o convenios de coordinación.

3. La Federación Bizkaina de Patinaje podrá percibir de sus federados y federadas una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de determinados servicios y actividades.

4. La Federación Bizkaina de Patinaje liquidará, entregando a la Federación Vasca, el importe neto de cada licencia en los términos que apruebe la Asamblea General y de acuerdo con lo establecido en el artículo 24.5 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. Dicho importe neto será el resultante de minorar al importe bruto los importes correspondientes a seguros y a las cuotas para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior, así como la parte que según acuerdo de la Asamblea General de la Federación Vasca le corresponda a la propia Federación Territorial.

**Artículo 11**

1. El formato y contenido de las licencias serán los aprobados por la Asamblea General de la Federación Vasca de Patinaje y en dichas licencias deberán emplearse necesariamente las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. La Federación Bizkaina de Patinaje informará a quienes deseen federarse sobre los requisitos y efectos de las licencias federativas y recogerá los documentos y datos necesarios para la afiliación federativa.

3. Lizentziak Euskal Irristaketa Federazioak luzatuko ditu.Hain zuzen ere, lizentziok komunikazioaren teknologiak behar bezala aprobetxatzea ahalbidetzen duten baldintza teknikoak biltzen dituen euskarrian eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako zehaztapen teknikoen arabera luzatuko dira.

4. Besteak beste, lizentziaren agirian jasoko da nahitaezko aseguruen kuota.

- a) Derrigorrezko aseguruen kuota.
- b) Euskadiko Irristaketa Federazioari dagokion kuota.
- c) Bizkaiko Irristaketa Federazioari dagokion kuota.
- d) Lurraldez-gaindiko txapelketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala dagokionean.

5. Lizentziaren agirian urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarri edukiak jasoko dira.

**12. artikulua**

1. Lizentzien iraupena urtebetekoa izango da, egutegiko urtea oinarri izanda, salbu eta Euskal Irristaketa Federazioak bestelako xedapena ezarri duenean.

2. Euskal Irristaketa Federazioak Lizentzien Arautegian pertsona federatu batek izan ditzakeen lizentzien bateragarritasunaren kasuak, baldintzak eta ondoreak zehaztuko ditu.

III. TITULUA

**GOBERNU-, ADMINISTRAZIO- ETA ORDEZKARITZA-ORGANOAK**

**13. artikulua**

Bizkaiko Irristaketa Federazioan hurrengo gobernu , administrazio eta ordezkaritza-organoak egongo dira:

- a) Batzar Orokorra bezala izendatutako gobernu-organoa.
- b) Kide anitzeko Administrazio-organoa. Horri Zuzendaritza Batzordea deritzo.
- c) Ordezkaritza-organoa. Horren titularra Federazioko presidentea izango da.

I. KAPITULUA

**BATZAR OROKORRA**

**14. artikulua**

Batzar Orokorra federazioko gobernu-organorik garrantzitsuena da, eta,

3. Las licencias se emitirán por la Federación Vasca de Patinaje en un soporte que cuente con unas condiciones técnicas que permitan un adecuado aprovechamiento de las tecnologías de la comunicación y de acuerdo con las especificaciones técnicas de dichos soportes que apruebe el Gobierno Vasco.

4. En el documento de la licencia se consignarán los siguientes conceptos:

- a) Cuota de los seguros obligatorios.
- b) Cuota destinada a la Federación Vasca de Patinaje
- c) Cuota destinada a la Federación Bikaina de Patinaje
- d) Cuota para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

5. En el documento de la licencia se consignarán también los contenidos establecidos en el artículo 25.4 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

**Artículo 12**

1. Las licencias serán de duración anual, coincidente con el año natural, salvo disposición distinta adoptada por la Federación Vasca de Patinaje.

2. La Federación Vasca de Patinaje determinará en el Reglamento de Licencias los supuestos, condiciones y efectos de la compatibilidad de las licencias que pueda ostentar una misma persona federada.

TÍTULO III

**ÓRGANOS DE GOBIERNO, ADMINISTRACIÓN Y REPRESENTACIÓN**

**Artículo 13**

En la Federación Bizkaina de Patinaje existirán los siguientes órganos de gobierno, administración y representación:

- a) Un órgano de gobierno denominado Asamblea General.
- b) Un órgano de administración colegiado denominado Junta Directiva.
- c) Un órgano de representación cuyo titular será el Presidente o Presidenta de la Federación.

CAPÍTULO I

**ASAMBLEA GENERAL**

**Artículo 14**

La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la Federación

c/ Martín Barua Picaza, nº 27, 5ª planta - 48003 Bilbao | Tel. 667 540 025
www.ftbp-iblf.org | federacion@ftbp-iblf.org

gutxienez ere, hurrengo eginkizunak beteko ditu:

a) Presidentea aukeratzea.
b) Federazioko kontuak eta aurrekontuak onestea.
c) Estatutuak eta horien aldaketak onestea.
d) Zentsura-mozioa onestea.
e) Txapelketa ofizialen egutegia onestea.
f) Federazioaren jarduketa-plana onestea.
g) Federazioen arautegiak eta horien aldaketak onestea.
h) Ondasun higiezinak xedatu, besterendu eta zamatzea, maileguak eman eta zorraren edota ondarearen zati alikuotaren tituluak igortzea, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
i) Federazioaren bereizketa erabakitzea.
j) Batzar Orokorraren onespena behar duten bestelako erabaki garrantzitsuak hartzea.

y tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Elegir Presidente o Presidenta.
b) Aprobar las cuentas y presupuestos de la Federación.
c) Aprobar los estatutos y sus modificaciones.
d) Aprobar la moción de censura.
e) Aprobar el calendario de competiciones oficiales.
f) Aprobar el plan de actuación de la Federación.
g) Aprobar los reglamentos federativos y sus modificaciones.
h) Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial, conforme a lo establecido en los presentes estatutos.
i) Acordar la disolución de la Federación.
j) Adoptar todas aquellas otras decisiones que, por su trascendencia, precisen la aprobación de la Asamblea General.

**15. artikulua**

1. Bizkaiko Irristaketa Federazioaren Batzar Orokorra lau urtetik behin aukeratuko da bozketa librea, zuzenekoa, berdina eta isilpekoa aplikatuta.

2. Hauteskundeak beti udako joko olinpikoen datetan egingo dira.

3. Salbuespenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurretiaz beren beregi emandako administrazio-baimenarekin, hauteskunde-prozeduraren hasiera atzeratu edo aurreratu ahal izango da hori zehaztu datetan hastea ezinezkoa denean.

**Artículo 15**

1. La Asamblea General de la Federación Bizkaina de Patinaje será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto.

2. En todo caso, las elecciones se realizarán coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos de verano.

3. Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa de la Diputación Foral de Bizkaia, el inicio del proceso electoral podrá retrasarse o adelantarse cuando en las fechas de inicio previstas no resulte posible.

**16. artikulua**

1. Batzar Orokorra klubetako eta kirol-taldeetako estamentuek, kirolariek, teknikariek eta epaileek osatuko dute, jarraian azaldutako proportzioan:

a) Batzarreko kide guztien %75eko klubetako eta kirol-taldeetako estamentuaren ordezkaritza.
b) Batzarreko kide guztien %15eko kirolarien ordezkaritza.
c) Batzarreko kide guztien %5eko teknikarien ordezkaritza, federatuen artean duten proportzioaren arabera.
d) Batzarreko kide guztien %5eko epaileen ordezkaritza, federatuen artean duten proportzioaren arabera.

2. Batzar Orokorreko kideen kopurua Hauteskunde Batzordeak zehaztuko du hauteskunde bakoitza baino lehen, hauteskundeerrolda, eta, hala denean, Hauteskunde Arautegian ezarritakoa kontuan hartuta.

3. Batzarra, gehienez ere, 20 kidek osatuko dute.

**Artículo 16**

1. La Asamblea General estará integrada por los representantes de los estamentos de clubes y agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción:

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 75% del total de miembros de la Asamblea.
b) Una representación para el estamento de deportistas del 15% del total de miembros de la Asamblea.
c) Una representación, en base a su proporción entre los federados para el estamento de técnicos y técnicas del 5% de los miembros de la Asamblea.
d) Una representación, en base a su proporción entre los federados para el estamento de jueces y juezas del 5% de los miembros de la Asamblea.

2. La cifra exacta de miembros de la Asamblea General se determinará, antes de cada elección, por la Junta Electoral, a la vista del censo electoral existente y de acuerdo con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento Electoral.

3. El núm. máximo de miembros de la Asamblea será de 20.

**17. artikulua**

1. Klubetako eta kirol-taldeen estamentuaren ordezkariak, Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan izena eman eta Bizkaiko Irristaketa Federazioari atxikita izanik, hauteskundeen denboraldian eta aurreko denboraldian jokatu duten 5 kirolari bere baitan dituzten klub eta kirol taldeek aukeratuko dituzte, betekizun berberak betetzen dituztenen artean. Gainera hauteskundeak ospatzen diren urtean zein aurrekoan kirol jarduera garrantzitsua izan behar dute eginik.

Araudi bidez ezarriko dira kirol jarduera garrantzitsuaren kontzeptua zein den ulertzeko irizpideak. Dena dela, Batzar Orokorrean lehen aipatutako betekizunak betetzen dituzten klub eta kirol taldeen ordezkari bana, gutxienez, egotea segurtatuko da.

2. Klub edo kirol elkarte bakoitzari dagokion boto kopurua ponderatua izango da, euren baitan biltzen dituzten pertsona edo/eta taldeak kontutan harturik.

**Artículo 17**

1. Las y los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas se elegirán por y entre la representación de los clubes y agrupaciones que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y adscritas a la Federación Bizkaina de Patinaje, tengan al menos 5 deportistas que hayan jugado durante la temporada de celebración de elecciones y que lo hayan hecho en la temporada anterior y, además, hayan realizado actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior.

Reglamentariamente se establecerán los criterios para determinar qué se entiende por actividad deportiva significativa. En todo caso se asegurará la presencia en la Asamblea General de un representante, como mínimo, por cada club o agrupación deportiva que cumpla los requisitos, anteriormente citados.

2. El voto que corresponda emitir a cada club o agrupación será ponderado atendiendo al número de personas y/o equipos inscritos.

**18. artikulua**

1. Kirolarien ordezkariak hemezortzi urtetik gorako kirolarien artean aukeratuko dira, baldin eta horiek hauteskundeen denboraldirako indarreko lizentzia badute eta aurreko denboraldian ere hori indarrean izan badute. Ordezkaritza hori aurretik aipatu baldintzak betetzen dituzten hamasei urtetik gorako kirolariek aukeratuko dute.

2. Teknikariak eta epaileak hauteskundeen denboraldirako indarreko lizentzia izan eta aurreko denboraldian ere hori indarrean izan dutenen artean aukeratuko dira, lizentziaren kategoria kontuan hartu gabe. Ordezkaritza hori 16 urtetik gorako teknikariek aukeratuko dute, beti ere aurreragо adierazitako betekizunak betetzen badituzte.

3. Horiek zein eperako aukeratu eta epealdi horretan Batzar Orokorreko kideen artean plazaren bat hutsik geratu bada, orduan Batzar Orokorreko azken hauteskundeetan estamentu bakoitzeko ordezkoen zerrendaren buruan dagoen pertsonak edo erakundeak beteko du, Hauteskunde Arautegiak horretarako ezarri prozedura aintzat hartuta.

**Artículo 18**

1. Las y los representantes del estamento de deportistas se elegirán entre deportistas mayores de dieciocho años que tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y que la hayan tenido en vigor también la temporada inmediatamente anterior. Dicha representación será elegida por las y los deportistas mayores de dieciséis años que cumplan las condiciones antes señaladas.

2. Las y los representantes del estamento de técnicos y técnicas y de jueces y juezas se elegirán por y entre quienes tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia.

3. Si durante el período para el que resultaron elegidos, se produjera alguna vacante entre los miembros de la Asamblea General, se cubrirán por la persona o entidad que encabece la lista de suplentes de cada estamento en las últimas elecciones a la Asamblea General, de acuerdo con el procedimiento que establezca al efecto el Reglamento Electoral.

**19. artikulua**

1. Batzar Orokorrak ohiko eta aparteko bilerak egingo ditu.

2. Batzar Orokorraren ohiko bilera urtean behin egingo da, urtearen lehenengo sei hilabeteetan, kontuen eta aurrekontuen egoera onesteko. Egutegi ofiziala denboraldia hasi aurretik onetsi beharko da.

**Artículo 19**

1. La Asamblea General se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias.

2. La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez al año, dentro del primer semestre del año para la aprobación del estado de cuentas y presupuesto.El calendario oficial deberá ser aprobado antes del inicio de la temporada.

3. Batzar Orokorraren aparteko bilera hurrengo gaiak eztabaidatzeko egingo da:

a) Hauteskundeak egiteko.
b) Zentsura-mozioa.
c) Estatutuak onetsi edo aldatzeko.
d) Federazioa bereizteko.
e) Arautegiak onetsi edo aldatzeko.

**20. artikulua**

1. Ohiko eta aparteko Batzar Orokorren deialdia Federazioko presidenteak ofizioz egingo du, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Orokorreko kideen %5ek hala eskatuta. Halakorik egin ezean, edo presidenteak batzarrerako deialdia egiteko betebeharra betetzen ez badu, Zuzendaritza Batzordeak, gehiengo soilaren bidez, edo Batzarreko kideen %5 ordezkatzen duen kolektiboak deialdia egitea eskatu ahal izango du.

2. Presidenteak Batzarrerako deialdia gehienez ere egutegiko 15 egunetan egingo du, kasuan kasuko eskabidea egiten denetik zenbatuta. Presidenteak deialdia zehaztutako epean egin ez badu, orduan Zuzendaritza Batzordeak, edo, hala denean, batzarkide eskatzaileek horren deialdia egin ahal izango dute.

**21. artikulua**

Batzar Orokorreko deialdia, dela ohikoa dela apartekoa, eguneko gai-zerrendarekin batera, Batzarreko kideei idatziz komunikatuko zaie, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin. Idatzizko komunikazioa baliozkoa izango da faxez, postaz, helbide elektronikoaren bidez edo erregistratzea edo gordetzea ahalbidetzen duen beste edozein baliabideren bidez egiten bada.

**22. artikulua**

1. Batzarreko kideek presidenteari eskatu ahal izango die eguneko gai-zerrendan gai interesgarriak jasotzea, baldin eta eskabidea, gutxienez, Batzarreko kideen %5ek egin badu, jaso beharreko gaia Federazioaren interes orokorrekoa denean; edo estamentu bateko kideen %5ek egin badu, jaso beharreko gaia estamentu horrentzat interesgarria denean.

Edozein kasutan ere, eskabidea gutxienez Batzarraren deialdia egin aurreko egutegiko bost eguneko aurrerapenarekin egin beharko da.

2. Eguneko gai-zerrendan jasotzeko proposatu den gaia ukatzen bada, eskatzaileari komunikatu beharko zaio, ukatze hori eragin duten arrazoiak azalduz.

3. La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:

a) Celebración de elecciones.
b) Moción de censura.
c) Aprobación o modificación de los Estatutos.
d) Disolución de la Federación.
e) Aprobación o modificación de los Reglamentos.

**Artículo 20**

1. La convocatoria de las Asambleas generales ordinarias o extraordinarias corresponde al Presidente o Presidenta de la Federación de oficio, a petición de la Junta Directiva o del 5% de los componentes de la Asamblea General.Si ello no fuera posible, o el Presidente o Presidenta no cumpliera con su obligación de convocar la Asamblea, la Junta Directiva, por acuerdo adoptado por mayoría simple, o un colectivo de miembros de la Asamblea que represente al 5% de sus componentes podrán exigir la convocatoria.

2. El Presidente o Presidenta deberá proceder a la convocatoria a la Asamblea en el plazo máximo de 15 días naturales a partir del día que se formule la correspondiente petición. Si el Presidente o Presidenta no procediere a la convocatoria en el plazo antes indicado, tanto la Junta Directiva como, en su caso, los asambleístas peticionarios podrán proceder a su convocatoria.

**Artículo 21**

La convocatoria de la Asamblea General, tanto ordinaria como extraordinaria, junto con el orden del día, será comunicada a los miembros de la Asamblea, por escrito, con una antelación mínima de 15 días. La comunicación escrita será válida cuando se efectúe por fax, correo electrónico u otro medio análogo que permita, en todo caso, poder registrarse o guardarse.

**Artículo 22**

1. Los miembros de la Asamblea podrán solicitar del Presidente o Presidenta la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 5% de los miembros de la Asamblea, si el punto a incluir es de interés general de la Federación; o de un 5% de los miembros de uno de los estamentos, si el punto a incluir es de preferente interés para el estamento de que se trate.

En todo caso la petición deberá formularse con una antelación de al menos cinco días naturales anteriores a la fecha de convocatoria de la Asamblea.

2. La denegación de la inclusión del punto propuesto en el orden del día deberá comunicarse al peticionario alegando las razones que hayan motivado la denegación.

**23. artikulua**

1. Batzar Orokorra lehenengo deialdian baliozkoa izango da kideen erdia gehi bat agertzen denean. Bigarren deialdia eratzeko nahikoa izango da parte-hartzaileen edozein kopuru.

2. Batzar Orokorreko kide ez diren Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak ahotsarekin baina boto-eskubiderik gabe parte hartu ahal izango dute.
Gainera, ez du baliorik izango quoruma zenbatzeko.

**24. artikulua**

Debekatuta dago Batzar Orokorrean botoa eskuordetzea.

II. KAPITULUA

**ZUZENDARITZA BATZORDEA**

**25. artikulua**

Zuzendaritza Batzordea Federazioaren administrazio-organoa da eta federazioko gaien administrazio-kudeaketa burutzen du. Halakoak Batzar Orokorraren gida-lerroen arabera garatu behar ditu.

**26. artikulua**

1. Zuzendaritza Batzordea, kideen kopuru bikoitiarekin osatutakoa, honela eratuko da:
   a) Presidentea, aldi berean, Federaziokoa izango dena.
   b) Presidenteordea. Horrek presidentearen eginkizunak beteko ditu hori aldi baterako ez dagoenean edo kargua utzi duenean.
   c) Gehienez ere 7 batzordekide.

Zuzendaritza Batzordean diruzain bat eta idazkari bat egongo dira, ahotsa bai baina botorik ez dutenak izango.

2. Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak ohorezkoak dira, diruzainaren eta idazkariaren karguak izan ezik.Azken hauen kasuan, ordainsaria jaso dezakete.

**27. artikulua**

1. Zuzendaritza Batzordeko kideak Federazioko presidenteak aukeratuko ditu beronek kargua hartu eta hogeita hamar eguneko epean.

**Artículo 23**

1. La Asamblea General quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes.

2. Todos los miembros de la Junta Directiva que no lo sean de la Asamblea General podrán asistir a ésta con voz pero sin voto.

Su asistencia no podrá ser computada a efectos de quórum.

**Artículo 24**

No se admitirá la delegación de voto en el seno de la Asamblea General.

CAPÍTULO II

**JUNTA DIRECTIVA**

**Artículo 25**

La Junta Directiva es el órgano de administración de la Federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar confirme a las directrices de la Asamblea General.

**Artículo 26**

1. La Junta Directiva, que contará con un número impar de miembros, estará compuesta por:
   a) Un Presidente o Presidenta, que lo será asimismo de la Federación.
   b) Un Vicepresidente o Presidenta o Vicepresidenta, que asumirá las funciones del Presidente o Presidenta en caso de ausencia temporal o cese de éste.
   c) Un máximo de 7 vocales.

La Junta Directiva contará además con un Tesorero o Tesorera y estará asistida por el Secretario o Secretaria de la Federación, ambos con voz pero sin voto.

2. Todos los cargos de la Junta Directiva son honoríficos, excepto el del Secretario o Secretaria y el del Tesorero o Tesorera que podrán ser retribuidos.

**Artículo 27**

1. Los miembros de la Junta Directiva serán elegidos por el Presidente o Presidenta dentro de los treinta días siguientes a haber accedido éste o ésta al cargo.

2. Zuzendaritza Batzordeko kideak, presidentearen kargua izan ezik -zeinari berari dagozkion arauak aplikatuko baitzaizkioberriro aukeratu ahal izango dira, hiru agintalditako epemugarekin. Ezin izango dute berriro aurkeztu lau urteko epealdi bat igaro arte.

2. Los miembros de la Junta Directiva, salvo el Presidente o Presidenta al que resulta de aplicación lo dispuesto para este cargo, podrán ser reelegidos, por un límite de tres mandatos, no pudiendo presentarse a la reelección hasta que haya trascurrido al menos un periodo de cuatro años.

**28. artikulua**

1. Federazioko presidenteari, edo, halakorik izan ezean, presidenteordeari, edo Zuzendaritza Batzordeko kideen %25ari dagokio bileretarako deialdia egitea.

2. Deialdia jorratu beharreko eguneko gai-zerrendarekin eta agiriekin batera egingo da.

3. Batzordeko kideei gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin jakinarazpena egingo zaie, behar bezala egiaztatutako presako kasuak izan ezik.

4. Hala ere, deialdirik egin ez bada ere, ulertuko da hori baliozkoa dela kide guztiek parte hartu badute eta aho batez egin bada.

5. Kideek beren beregi onartzen dutenean, Zuzendaritza Batzorderako deialdia baliozkotzat joko da, baldin eta akordioak helbide elektronikoaren bidez, faxez edo Batzordeko kideen adierazpenak jasotzen dituzten antzeko baliabideen bidez hartu badira, baita akordio horiek hartzeko botoa ere. Kasu horretan, aktarekin batera, parte-hartzeen eta botoen egiaztagiriak gorde beharko dituzte.

**Artículo 28**

1. Corresponderá al Presidente o Presidenta de la Federación o, en su defecto, al Vicepresidente o Vicepresidenta, o al 25% de los miembros de la Junta Directiva, la convocatoria de las sesiones de la misma.

2. La convocatoria se acompañará del orden del día donde figuren los asuntos a tratar, y de la documentación relativa a los mismos.

3. Será notificada por escrito a los miembros de la Junta con al menos dos días de antelación, salvo supuestos de urgencia debidamente justificados.

4. No obstante, aunque no haya convocatoria, se entenderá válidamente constituida si concurren todos sus miembros y así lo acuerdan por unanimidad.

